



AMEZKETAKO UDALA



FERNANDO AMEZKETARRA

ERGOENA

ELIZA NAGUSIA ETA TORREA

Fernando Amezketarrak hartu zituen sakramentu gehienak eliza honetan hartu zituen: Bataiokoa, 1764an; Sendotzakoa 1771ean; Ezkontzakoa 1790ean... Jaunartzekoa ere bertan egingo zuen baina ez dago, tamalez, horren berri ematen digunik. Aitortzakoa eta Gaixoen Oliodura *Azentzin haundi* baserrian hartu zituen don Juan Ignazio Urretabizkaiari esker.

Eliza nagusi honek san Bartolome apostoluaren izena darama. Berrehun urte behar izan zituen Amezketak eliza hau bukaturik ikusteko. 1547an eman zituzten lehenengo urratsak eliza berria egiten hasteko, baina gorabehera asko izan zen eta bi mende joan ziren zutik ikusi arte. 1740 aldera bukatu zen. Elementurik baliosoena bere erretaula barrokoa duzue, zeina Oiartzungo Jose Zuaznabar arkitektoari zor diogun.

Gaur egun elizak duen bigarren elementu aipagarria zera da: oraindik ere 116-117 argizaiola daudela. Antzinako usadioa da hildakoen oroitzapenari argiaren bitartez eustea. Amezketan bizirik dago ohitura.

Bestalde, garai bateko sepulturetan ehortzi zituzten askoren gorpuzkinak gordetzen dira oraindik ere. 1810. urtera arte elizan ematen zitzairen lurra hildakoei Amezketan ere.

Eliza inguruko etxalde honi *Ergoena* deitzen zaio. Puntu honetako etxerik zaharrenetakoari *Torrea* deitzen diogu. Berrikuntza asko izandako eraikina da. Azkena XX.mendearen hondarrean. Etxe honi buruzko lehenengo aipamenak XVI.mendekoak dira.

Fernando Amezketarraren ama aldeko aiton-amonak etxe honetan bizi izan ziren. Bere ama ere teilatupe honetan jaiotakoa da. Fernando etxe honetan jaio zela pentsa dezakegu.